

ELKARRIZKETA • Jean-Louis Davant idazlea

4



ARGAZKIA: CHRISTOPHE DE PRADA SAMARUTI

«Euskal politikari handienetakik bat izan zen Antso Nagusia, eta ondo asmatzen jakin zuen»

• **Antso Nagusia Nafarroako errege-az pastoral bat idatzi duzu. Nor izan zen Antso Nagusia?** Iruñeko errege zen, hori zuen titulu zuzena. Euskalduna zen, seguraz ere, eta euskaldun guztien errege behintzat izan zen, XI. mendean. Errege karguan egon zen 1004 eta 1035. urteen bitartean. Egungo Euskal Herriaren lurralde guztiak izan zituen bere hegalean, salbu Tuterako eskualdea, hau musulmanen esku baitzen garai haietan. Esan ohi da, arabiarren esku zela Tuterako merindadea, baina pentsatzeko da musulman gehienak tokiko jendeak zirela. Eskualde hori kristauek berreskuratu zuten 1119an, oker ez banago.

• **Tuterako eskualdea ez ezik, egungo euskal lurralde guztiak bere agindupean zauzkan, beraz, Antso Nagusiak. Baina beste lurralderik ere gobernatu zuen, ezta?** Bai. Antso Nagusiak bere hegalean izan zituen Gaskoina, honen zati handiena euskalduna baitzen garai haietan, baita Aragoi mendialdea ere, hura ere euskaldun zatekeelarik orduan. Gaztela eta Leon ere Antso Nagusiaren erresuman zeuden. Gaztelaren zati bat ere euskalduna zen. XV. mendean, euskaraz ari ziren Bureba deitzen den eskualde horretan, Burgosko ateetaraino. Beraz, Antso Nagusiaren erresuma, Garona ibaitik iparraldean, Duro ibaia arte hegoaldean, eta Galiziako zein Kataluniako mendebaldeko eta ekialdeko muge-tara hedatu zen.

Antso III. Gartzes Nagusiaren erregealdia hastearren 1.000. urteurrena datorren urtean ospatuko delarik, Jean-Louis Davant idazle zuberotar eta euskaltzainak pastoral bat idatzi du, bere iritzian, «Euskal Herriak ukan duen politika gizon hoberenaren» bizi-urratsak eta obrak aipatzeko.

Allande Sokarros / Larrabile

• **Esan daiteke, orduan, Gaztelako eta Aragoiko erresumak Nafarroako Erresumaren alabak bezala izan zirela?** Bai. Eskualde hauek, edo hauen zati bat behintzat, Iruñeko Erresumaren bi hegalek ziren.

• **Eta Gaskoinari dagokionez, berriz?** Gaskoina edo Vaskonia, Iruñeko Erresumaren barne zenez ez da argi. Seguru dena da han botere bat bazuela Antso Nagusiak, eta harreman estuak eta onak zituela hango Antso Gillen dukearekin. Izan ere, lehengusuak ziren Antso Nagusia eta Antso Gillen; haurtzaroan sarritan elka-

«Gaztela eta Aragoi, zati bat behintzat, Iruñeko Erresumaren bi hegalek ziren»

rrekin egonak ziren Antso Abarka erregearen gortean. Gaskoina eta Iruñeko Erresumaren arteko lotura-zen izaera ez da oso argi, baina esan daiteke Gaskoina Iruñeko Erregearen zaingoko lurralde bat zela.

• **Horrelako zabalera zuen Erresuma nola osatu zuen Antso Nagusiak? Pentsa daiteke gerrak egin zituela?**

Ez horrenbeste. Iruñeko Erresuma asko hedatu zuen, baina, azken batean, gerra gutxi eginda. Diplomaziaz eta ezkontzen bitartez hedatu zuen gehienbat. Gerra batzuk egin zituen, hala ere, beste kristau batzuen aurka; hala nola, Okzitaniako Tulusako Jaunari buru egiten lagundu zuen Gaskoinako Dukea. Tulusako Jaunak, antza, gaur egun Ariege den eskualde horretan lur zenbait hartu zizkion Gaskoinako Dukeari, eta, iduriz, Antso Nagusiak bere lehengusua lagundu zuen lur horiek berreskuratzen.

• **Eta musulmanen kontutik, zer?**

Musulmanen aurka ere gerra egin zuen Antso Nagusiak. Haiei hartu zizkien Pallars, Ribagortza eta Sobrarbako eskualdeak. Kataluniako mugan, bereziki, Roda izeneko hiria eta hango katedrala kendu zien musulmanei. Azpimarratu behar da, ordurako, Almanzor (edo Al-Manzur) ospetsua zenduta zela. Hau izan zen musulmanen eskupeko herrialdeen buruzagi nagusia, eta izialdurapean atxiki zituen, bai kristauak, baita musulmanak ere. Almanzor hil ondoren, haren Kalifa Erresuma Taifas erresuma txikietan zatitu zen. Eskualde bakoitzean, errege bat edo, zubereraz esaten dugun bezala, *erregetxopit* bat agertu zen. Hauetatik bat, Al-Manzur zenaren seme zen Al-Mundir oso gogorra izan zen Zaragoza aldean. Haren aurka, gerra egin zuen Antso Nagusiak, eta hari zion, hain zuzen ere, Roda hiria kendu.

• **Musulmanekin bakerik egitea ez zuen lortu Antso Nagusiak?** Zaragozako buruzagi musulmanari handiki gogor egin zion Antso Nagusiak, Aragoi aldean eraikiarazita gotorleku eta gazteluak. Al-Mundir zendu zelarik, ordea, bakea egin zuen haren semearekin. Eskualde horretako musulmanen buruzagi berriak Zaragozan egin zion harrera Antso Nagusiari, eta honek, ordainez, ehizketarako zaldiak eskaini zizkion.

• **2004an, 1.000 urte egingo du An-**